

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1761

AGINDUA, 1993ko maiatzaren 5ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Haur Hezkuntzan ebaluaketa araupetzen duena.

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza-sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoak, eta abuztuaren 11ko 236/1992 Dekretuak, Euskal Autonomi Elkartean Haur Hezkuntzarako curriculuma ezartzen duenak, diotenaren arabera, etapa horretako hezkuntza-praktika arautu behar duten helburu, edukin, pedagogi metodo eta ebaluaketa-irizpideen multzoa da curriculuma.

Dekretu horretan bertan adierazten denez, ikastetxeek zehaztu eta osatuko dute curriculuma. Horretarako, etapako curriculum-proiektuak landu beharko dira, bertan azaltzen diren helburuak, edukinak, izaera orokorreko irizpide metodologikoak eta ebaluaketa-pozesuari buruzko erabakiak, gizarte, ekonomi eta kultur testuinguruari erantzuteaz gain, ikaslegoaren ezaugarri eta premietara egokitu behar direlarik.

Halaber, 12. atalean jasota dagoenez, irakasleagoak ebaluatuko ditu ikasleen ikaskuntzak, irakaskuntza-prozesuak eta bere irakas-iharduna. Aldi berean, ondo-koak ere ebaluatu beharko ditu: abiarazitako curriculum-proiektua, irakas-programazioa eta curriculumaren garapena, Ikastetxearen hezkuntza-premiei eta ikasleen berariazko ezaugarri egokitzen ote zaizkion kontuan harturik. Azkenik, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko aldaketak proposatu beharko ditu edo eta erabaki egokiak hartu.

Era berean, etapa honetako ikasleen ikaskuntzaren ebaluaketak indibidualdua, jarraitua, globala eta prestatuntzazkoa izan behar du. Ebaluaketa-prozesua burutzeko teknika nagusia, bestalde, behaketa zuzen eta sistematikoa da.

Bukatzeko, aipatu Dekretuan, 13 eta 14. ataletan, curriculum-egokitzapenak egin daitezkeela adierazten da eta horien zentzuaren berri ematen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila ahalmentzen delarik ikasleen promozioari eta ebaluaketari buruzko arau egokiak emateko.

Dekretu horren ondoren, Sailak 1992ko abuztuaren 13ko Agindua eman zuen argitara, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzaren ezarpenari buruzkoa. Irakasleagoak ikasleen ebaluaketa-prozesuan dituen zereginen eta, ebaluaketa dela eta, Ikastetxearen Curriculum-proiektuan agertu beharreko neurrien berri ematen da bertan.

Bestalde, 1992ko urriaren 30eko Aginduko bigarren azken xedapenak dioenez, ebaluaketa-txostenetan azaldu beharreko oinarriko elementuak jasotzen baititu,

Disposiciones Generales del País Vasco

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

1761

ORDEN de 5 de mayo 1993, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula la evaluación en la Educación Infantil.

La Ley Orgánica 1/1990 de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo y el Decreto 236/1992 de 11 de agosto por el que se establece el currículo de la Educación Infantil para la Comunidad Autónoma del País Vasco entienden por currículo el conjunto de objetivos, contenidos, métodos pedagógicos y criterios de evaluación que han de regular la práctica educativa en dicha etapa.

En el mismo Decreto se establece que los centros docentes concretarán y completarán el currículo mediante la elaboración de proyectos curriculares de etapa, cuyos objetivos, contenidos, criterios metodológicos de carácter general y decisiones sobre el proceso de evaluación respondan y se adecúen al contexto socioeconómico y cultural, y a las características y necesidades del alumnado.

Asimismo, en su artículo 12, establece que el profesorado evaluará tanto los aprendizajes de los alumnos y alumnas como los procesos de enseñanza y su propia práctica docente. Igualmente deberá evaluar el proyecto curricular emprendido, la programación docente y el desarrollo del currículo en relación con su adecuación a las necesidades educativas del Centro y las características específicas de los alumnos y alumnas, proponiendo las modificaciones o tomando las decisiones oportunas que contribuyan a mejorar la calidad educativa.

Se recoge también que la evaluación del aprendizaje de los alumnos y alumnas de esta etapa será individualizada, continua, global y formativa, y que la observación directa y sistemática constituirá la técnica principal del proceso de evaluación.

Por último, dicho Decreto, en sus artículos 13 y 14, establece la posibilidad y el sentido de las adaptaciones curriculares y faculta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación para dictar las normas pertinentes en materia de evaluación y promoción de alumnos.

Con posterioridad al Decreto referido, el Departamento publicó la Orden de 13 de agosto de 1992, de implantación de la E. Infantil y Primaria, en la que se establecía el papel del profesorado en el proceso de evaluación de los alumnos así como las medidas que el Proyecto Curricular de Centro debía recoger en materia de evaluación.

Por otra parte, la disposición final segunda de la Orden de 30 de octubre de 1992 por la que se establecen los elementos básicos de los informes de evaluación

Haur Hezkuntzan, Autonomi Elkarte bakoitzeko organismo eskudunek ezarriko dituzte ebaluaketa egiteko, behaketak jasotzeko eta familiei informazioa emateko dokumentu egokiak.

Curriculum-proiektuen oinarritzko osagaiak ezarri ondoren eta, ebaluaketari buruzko erabakiak direla eta, Ikastetxeek duten autonomia mugatu eta gero, oinarritzko arategi bat ezarri behar gaude, etapa honetako ikasle goaren ebaluaketa sistematizatzeko, irakaskuntza prozesua bera araupetzeko eta Ikastetxeen, familien eta ziklo desberdinetako irakasleen artean informazioa trukatzeko bidea emango digularik.

Hori dela eta, abuztuaren 11ko 236/1992 Dekretuko Lehen Azken Xedapenak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari ematen dizkion eskuduntzez baliatuz, honakoa

XEDATU DUT:

I. EZARPEN-EREMUA

1. *atala*. – Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren kudeaketa-eremuan kokatuta dauden ikastetxe guztietan, publiko zein pribatuetan, Hezkuntza-sistemen Antolaketa Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritako Haur Hezkuntzari dagozkion irakaskuntza ematen dutenetan, aplikatuko da honako Agindua.

II. IKASLEEN IKASKUNTZAREN EBALUAKETA

II.1. Ikasle goaren ebaluaketaren ezaugarriak

2. *atala*. – 236/1992 Dekretuko 12. atalean ezarritakoaren arabera, Haur Hezkuntzan, ikasle ikaskuntzaren ebaluaketak izaera globala, indibidualdua, jarraitua eta prestakuntzazkoa izan behar du. Hona hemen aipatutako ezaugarrien azalpena:

Indibidualdua: ikasle bakoitzaren garapenaren berri ematen duena eta hezkuntza-prozesuak aurrera egin dezan jarraipideak ezartzen dituena.

Jarraitua: eskola-prozesu osoan zehar egindakoa, bertako zati izaki, prozesu horrek dituen fase desberdinak orientatzeko edo eta aldatzeko balio duelarik.

Globala: pertsona bere osotasunean hartzen duena, prozesuan parte hartzen duten kide guztien ikuspegiak bertan bateratzen direlarik.

Hori horrela, hezkuntza-prozesua dela eta, prestakuntza, orientabide eta autozuzenketa izaera izango du ebaluaketak, hezkuntza-eskuhartzeko prozesu eta emaitza guztiak hobetzen lagunduko duen etengabeko informazioa ematen baitu.

3. *atala*. – 1. – Etapak irakas-taldeari dagokio Haur Hezkuntzako curriculum-a ezartzen duen abuztuaren 11ko 236/1992 Dekretuan izaera orokorrez xedatutako curriculum-helburu eta edukinak testuinguruari eta haurren ezaugarriei egokitzea. Helburuek eta edukinek

determina que, en el caso de la Educación Infantil, serán los organismos competentes de cada Comunidad Autónoma quienes establecerán los documentos pertinentes para la evaluación, registro de las observaciones e información a las familias.

Establecidos, pues, los componentes básicos de los Proyectos Curriculares y delimitada la autonomía de los Centros respecto a las decisiones relacionadas con la evaluación, procede establecer una normativa básica que ayude a sistematizar la evaluación del alumnado de esta etapa, regular la evaluación del propio proceso de enseñanza, facilitar el intercambio de información entre los Centros y las familias y entre el profesorado de distintos ciclos.

Por todo lo cual, en virtud de la autorización que la Disposición Final Primera del Decreto 236/1992 de 11 de agosto confiere al Consejero de Educación, Universidades e Investigación,

DISPONGO:

I. AMBITO DE APLICACION

Artículo 1. – La presente Orden será de aplicación en todos los Centros, tanto públicos como privados, situados en el ámbito territorial de gestión del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que impartan las enseñanzas correspondientes a la Educación Infantil establecida en la Ley Orgánica 1/1990 de 3 de octubre de Ordenación General de Sistema Educativo.

II. EVALUACION DEL APRENDIZAJE DE LOS ALUMNOS

II.1. Características de la evaluación del alumnado

Artículo 2. – De acuerdo con lo establecido en el artículo 12 del Decreto 236/1992, la evaluación del aprendizaje de los alumnos en la Educación Infantil tendrá el carácter de global, individualizada, continua y formativa, entendiendo estas características del siguiente modo:

Individualizada: recogiendo el desarrollo de todos y cada uno de los alumnos y alumnas y marcando las pausas para la continuación del proceso educativo.

Continua: realizada a lo largo de todo el proceso escolar, formando parte del mismo y sirviendo para orientar o modificar sus sucesivas fases.

Global: considerando a la persona en su totalidad y confluendo en ella las diversas perspectivas de quienes participan en el proceso.

La evaluación tendrá, en consecuencia, un carácter formativo, orientador y autocorrector del proceso educativo, al proporcionar una información constante que permitirá mejorar tanto los procesos como los resultados de la intervención educativa.

Artículo 3. – 1. – Corresponde al equipo docente de la etapa adecuar al contexto y a las características de los niños y niñas, los objetivos y contenidos curriculares dispuestos con carácter general en el Decreto 236/1992 de 11 de agosto, por el que se establece el currículo de

etapako curriculum-proiektuaren osagai izan eta ebaluaketa-prozesua gidatuko dute.

2.- Hona hemen ikaskuntza-prozesua ebaluatzerakoan kontuan izan beharreko oinarrizko erreferenteak:

- a) Etaparen helburu orokorrak edo, hala badagokio, zikloenak.
- b) Esperientzia-eremuen helburu orokorrak.

3.- Ikastetxe bakoitzeko irakas-taldeak curriculum-proiektuan ondokoak ezarri beharko ditu: ziklo bakoitzean gaitasunak noraino eskuratu eta garatu diren baloratzeko bidea emango dioten irizpideak eta ebaluaketa-jarraipideak eta, halaber, proiektuari hobe egokitzen zaizkion ebaluaketa-estrategiak. Hori egitekotan, kontuan hartu beharko du haurraren ikaskuntza-prozesua ulertzen lagunduko dion oinarrizko teknika behaketa zorrotz eta sistematikoa dela eta aintzat hartuko ditu baita ere ikasleen iharduera, erantzun eta ekoizpenetik lortutako datuak. Horretaz gain, ebaluaketa egiteko, ebaluatu nahi diren helburuei eta ikasle guztiei egokitzen zaizkien modu eta tresna desberdinak erabiltzea bultzatu beharko du.

4.- Ikastetxeko Curriculum-proiektuaren norabideak direla eta, tutoreari dagokio ikasleen ikaskuntza ebaluatzea.

5.- Ikaskuntza-prozesuen balorazioa kualitatiboki adieraziko da, haurren aurrerakuntzak eta, kasuan-kasu, burututako errefortzu-neurriak eta aldaketak jasoko direlarik.

II.2. Ebaluaketa adierazteko dokumentuak

4 atala.- 1.- Eskolatzearen hasieran, Haur Hezkuntzan, haur bakoitzaren EXPEDIENTE PERTSONAL bat irekiko du Ikastetxeak. Espediente horrek bermatuko du Agindu honetan aurikusitako oinarrizko dokumentu derrigorrezkoak bildu eta artxibatuko direla. Ikastetxeak egokien deritzon itxura aukera dezake, beti ere kontuan izanda bertan haurraren izen-deiturak eta ikastetxearen izen ofiziala adierazi behar direla.

2.- Espediente Pertsonala haur bakoitzaren dokumentu pertsonalek osatuko dute, ondokoek nahi eta nahi ez bertan agertu behar dutelarik: Ikaslearen Fitxa Pertsonalak, Eskolaketa-laburpenek, Ebaluaketa-txosten Indibidualduak eta Ebaluaketaren Azken Txostenak. Era berean, komenigarria da haurren aurreko eskolatzearen berri ematen duten dokumentuak edo eta Ikastetxearen ustez, bere eskumenak kontuan, interesgarri den beste edozein datu ere biltzea.

5. atala.- IKASLEAREN FITXA PERTSONALEAN, I Eraskineko eredia jarraituko duelarik, filiazio eta familiar buruzko datuak jasoko dira eta baita ikasleak eskolatzeko zuzena izan dezan garrantzitsuak diren datuak ere (beharrezko datu medikoak...). Datu horiek interesatzen zaizkigun haur bakoitzaren dokumentu pertsonalekin osa daitezke.

6. atala.- 1.- ESKOLAKETA-LABURPENAK Haur

la Educación Infantil. Estos objetivos y contenidos formarán parte del proyecto curricular de la etapa y guiarán el proceso de evaluación.

2.- Los referentes básicos para la evaluación del proceso de aprendizaje serán:

- a) Los objetivos generales de etapa o, en su caso, de los ciclos.
- b) Los objetivos generales de los ámbitos de experiencia.

3.- El equipo docente de cada Centro deberá establecer en su proyecto curricular los criterios y pautas de evaluación que permitan valorar el grado de adquisición y desarrollo de las capacidades en cada ciclo. Igualmente establecerá las estrategias de evaluación que mejor se adapten al propio proyecto, teniendo en cuenta que la técnica básica que permite comprender al niño en su proceso de aprendizaje es la observación rigurosa y sistemática y el análisis de los datos obtenidos y de las actuaciones, repuestas y producciones de los alumnos, y potenciando la utilización de diferentes formas e instrumentos de evaluación que se adapten tanto a los distintos objetivos a evaluar, como a la diversidad de los alumnos y alumnas que van a ser evaluados.

4.- Corresponde a los tutores o tutoras, en el marco de las directrices del Proyecto Curricular del Centro, la evaluación del aprendizaje de los alumnos.

5.- La valoración del proceso de aprendizaje se expresará en términos cualitativos, recogiendo los progresos efectuados por los niños y niñas y, en su caso, las medidas de refuerzo y adaptación llevadas a cabo.

II.2. Documentos para el reflejo de la evaluación

Artículo 4.- 1.- Al inicio de la escolarización, en la etapa de Educación Infantil, el Centro abrirá un EXPEDIENTE PERSONAL de cada niño o niña. Dicho expediente garantizará el archivo acumulativo de los documentos básicos y obligatorios previstos en la presente Orden, pudiendo determinar el Centro el formato que considere más adecuado para ello y haciendo constar en todo caso el nombre y apellidos del niño o niña y el nombre oficial del propio Centro.

2.- En el Expediente Personal se integrarán los distintos documentos personales de cada niño o niña. Entre ellos, se establecen como obligatorios los siguientes: la Ficha Personal del Alumno, los Resúmenes de la Escolaridad, los Informes de Evaluación Individualizados y el Informe Final de Evaluación. Así mismo es conveniente recoger la documentación que los alumnos aporten de su escolarización previa y cualquier otro dato que el Centro, de acuerdo con sus competencias, considere de interés para la escolarización.

Artículo 5.- En la FICHA PERSONAL DEL ALUMNO, que se ajustará en cuanto a contenido al modelo del Anexo I, se consignarán los datos de filiación y los datos familiares, así como aquellos otros datos relevantes para la escolarización correcta del alumno (datos médicos necesarios...). Estos datos podrán ser complementados mediante los documentos personales de cada niño o niña considerados de interés.

Artículo 6.- 1.- Los RESUMENES DE LA ESCOLARI-

Hezkuntzako ikasmaila bakoitza bukatutakoan beteko dira. Bertan, honakoak jasoko dira: eskolatzeari buruzko oinarriko datuak, urte bakoitzean haurra egon den Ikastetxea eta, azkenik, eskolatzeari buruzko behaketak. Ikastetxearen zuzendariak itxiko du Eskolaketa-laburpena zikloa bukatutakoan. Aipatutako dokumentuek Eskolaketa-liburuaren lekua hartzen dute etapa honetan. Horietan II eta III Eraskinetan ageri diren ereduak eduki berri jaso beharko da.

2.- Ikasleak hezkuntza-premia bereziak izanez gero, Espediente pertsonalean ziklo bakoitzeko Curriculum-egokitzapen Indibiduala sartu beharko da eta, hala badagokio, eskolatzeko-proposamenaren kopia bat.

3.- Tutorearen esku dago bere kargura dagoen ikasle bakoitzaren Eskolaketa-laburpena urtero betetzea. Ikastetxeko zuzendariak, berriz, ikasmaila bakoitzari dagokion laukian sinadura jarriko du. Bestalde, biek izenpetu beharko dute dokumentua zikloa bukatzen den egunean.

7. atala.- 1.- EBALUAKETA-TXOSTEN INDIVIDUALDUAK tutoreek egindako dokumentuak dira. Ikasle bakoitzak ezarritako helburuak noraino lortu dituen adierazten da bertan. Hona hemen xedea: etapan zehar, ikasleen ikaskuntza-prozesua jarraitua izango dela ahalbidetuko duten datu garrantzitsuak ematea.

2.- Ebaluaketa-txosten indibidualduak irakas-taldeak berak zehaztuko ditu etapako Curriculum-proiektua egiterakoan. Hona hemen txosten horietako erdigune izan behar dutenak:

a) esperientzia-eremu bakoitzean gainditu diren eta gainditzeke dauden prozedurazko, kontzeptuzko eta jarrazko edukiak.

b) Esperientzia-eremu bakoitzean ezarri diren hezkuntza-errefortzuak edo curriculum-egokitzapenak eta horiekin jarraitzeko aukerak.

3.- Ikasturte bakoitza bukatzen denean, tutoreek txosten indibidualdu bat egingo dute, etapako azken maila bukatutakoan izan ezik, kasu horretan hurrengo atalean ageri den Ebaluaketaren Azken Txostena egin beharko baitute. Aipatutako txosten horiek guztiak ikaslearen espediente pertsonalean sartuko dira.

8. atala.- 1.- Ikasleak Haur Hezkuntzako etapa bukatu ondoren, ikasmaila bakoitzeko txostenetako datu garrantzitsuenak hartuko ditu tutoreak eta EBALUAZIOAREN AZKEN TXOSTENA egingo. Etapako irakaslearen esku dago edukiak zehaztea eta txostenari itxura ematea, alabaina kontuan hartu behar dute curriculum-proiektuan erabakitakoaren berri jaso behar dutela.

2.- Ikaslea ikastetxe berean geratuz gero, Ebaluaketaren Azken Txostena Lehen Hezkuntzako lehen zikloko tutoreari luzatuko zaio.

3.- Ikaslea beste ikastetxeren batera joanez gero, Ikastetxe berriko Idazkariak jatorrizko Ikastetxeari eskatu beharko dizkio Ikaslearen Fitxa Pertsonala, zikloetako Eskolaketa-laburpenak eta Ebaluaketaren Azken Txostena, etapa bukatu bada, edo bestela, Urte-

DAD, que se formalizarán al final de cada uno de los cursos de Educación Infantil, reflejarán los datos básicos de escolarización, el Centro en que el alumno ha estado escolarizado cada año, así como posibles observaciones sobre las circunstancias de la escolaridad. Cada Resumen de la Escolaridad será cerrado por el Director o Directora del Centro al finalizar cada ciclo. Estos documentos sustituyen funcionalmente en esta etapa al Libro de Escolaridad y se ajustarán en su contenido a los modelos de los Anexos II y III.

2.- Cuando un alumno o alumna presente necesidades educativas especiales se incluirá en su Expediente Personal la Adaptación Curricular Individual de cada ciclo cursado, y en su caso, una copia de la propuesta de escolarización correspondiente.

3.- La cumplimentación anual del Resumen de Escolaridad de cada alumno es responsabilidad del respectivo tutor o tutora. El Director o Directora del Centro firmará personalmente en la casilla correspondiente a cada curso y ambos firmarán el documento en la fecha de finalización del ciclo.

Artículo 7.- 1.- Los INFORMES DE EVALUACION INDIVIDUALIZADOS consistirán en un documento elaborado por los tutores o tutoras en el que se dé cuenta de la situación del alumno respecto a la consecución de los objetivos establecidos. Su finalidad es proporcionar datos relevantes que faciliten la continuidad del proceso de aprendizaje de los alumnos a lo largo de la etapa.

2.- Los Informes de Evaluación Individualizados serán definidos por el propio equipo docente en el Proyecto Curricular de etapa, y deberán centrarse en los siguientes elementos:

a) Contenidos procedimentales, conceptuales y actitudinales superados o pendientes de superar en cada uno de los ámbitos de experiencia.

b) Refuerzos educativos o adaptaciones curriculares que se han establecido en cada ámbito de experiencia, y perspectivas de continuidad de las mismas.

3.- Los tutores o tutoras elaborarán un informe individualizado al finalizar cada año académico, excepto al finalizar el último curso de la etapa, en que el será sustituido por el Informe Final de Evaluación al que se refiere el artículo siguiente. Estos informes formarán parte del expediente personal del alumno.

Artículo 8.- 1.- Al finalizar el alumno o alumna la etapa de Educación Infantil, la tutora o tutor recogerá los datos más relevantes de los informes de cada curso y elaborará un INFORME FINAL DE EVALUACION. La definición del contenido y formato del mismo corresponde al equipo de profesoras-profesores de la etapa y quedará reflejada en el Proyecto Curricular.

2.- Cuando el alumno o alumna permanezca en el mismo Centro, el Informe Final de Evaluación se trasladará al tutor o tutora del primer ciclo de Educación Primaria.

3.- Cuando un alumno o alumna se traslade a otro Centro, el Secretario del nuevo Centro solicitará al Centro de origen la Ficha Personal del Alumno, los Resúmenes de la Escolaridad de los correspondientes ciclos, así como el Informe Final de Evaluación, si ha finaliza-

ko txostena, ikaslea etapa bukatu aurretik joan bada. Jatorrizko Ikastetxeak hiru urtez gorde beharko ditu dokumentu horien kopia.

9. atala.- 1.- Ikastetxearen Idazkariari dagokio, edo bestela Zuzendaritza-taldeari, espedienteak gordetzea eta artxibatzea. Bertan jasota dauden dokumentuak ikastetxean gordeko dira. Lurralde Ordezkaritzek emango dituzte espedienteak gordetzeko edo lekuz aldatzeko neurri egokiak.

2.- Ikastetxeetan jasotako informazio guztia norbanakoen intimitate-eskubidearen babespean dago; hortaz, ikastetxearen erantzukizunpean dago hori erabiltzea edo zabaltzea hezkuntzaren berezko xede ez diren kasuetarako.

10. atala.- Talde bakoitzeko tutoreak egin beharko du ikaslearen ikaskuntzaren ebaluaketa. Horretarako eskola-testuinguruan taldearekin edo eta ikasle jakinen batekin lanean ari diren gainontzeko irakasleen informazioa bilduko du.

II.3. Ebaluaketa prozesuaren garapena

11. atala.- 1.- Haur Hezkuntzako Ikastexeren batera estrainekoz joaten denean, haurraren garapen-prozesuari buruzko datu garrantzitsuenen berri jasoko da. HASIERAKO EBALUAKETA horretan gurasoek edo eta legezko arduradunek emandako informazioa agertuko da eta, hala bada, goki, hezkuntza-eskuhartzerako baliagarria den informazio garrantzitsua ere. Bestalde, eskolara sartu eta lehen epealdi horretan haurren gaitasunen garapen-maila zuzenean behatuko du irakasleak, ebaluaketa horrekin Fitxa Pertsonalean (I Eraskina) agertzen den informazioa osatuko du.

2.- Modu berean, haurrak lehen zikloa jada egina badu, bigarren zikloa irakasten duten Ikastetxeek egoki iruditzen zaizkien datuak eskatuko dizkiote jatorrizko Ikastetxeari. Dena den, besteren batean aritu diren haurrak hezitzen dituen Ikastetxe orok jatorrizkoari beharrezko informazioa eskatuko dio.

12. atala.- 1.- Hezkuntza-prozesuak iraun bitartean, ebaluaketa kualitatiboa egin beharko da etengabe. Ebaluaketa hori baliagarria da zenbait alderdi zehazteko, hala nola, egoerak, hobekuntzak eta eragozpenak eta baita horien iturburuak eta gaintzeko proposamenak ere. Horretaz gain, ebaluaketaren oinarri gisa, ikasgelako kideen ikuspegi desberdinak kontuan hartu eta erkatutako behaketak eta datu garrantzitsuak jaso behar dira.

2.- EBALUAKETA JARRAITUAREN helburua hezkuntza eskuhartzea mugatzea da, ikaskuntza-prozesua bultzatzen baita horrela. Beraz, ikasleak proposatutako helburuak lortzen ez dituen bakoitzean, helburu horiek erdiesten lagunduko dioten hezkuntza-errefortzuak burutu beharko dira. Hori nahikoa ez bada, curriculum-egokitzapen individual bat landu beharko da. Ebaluaketaren berri jasotzeko dokumentu ofizial guztietan adierazi beharko da aipatutako neurriren bat hartu ote den.

do la etapa, o el último Informe Anual, en caso de que el traslado se produzca antes de finalizarla. En el Centro de origen se conservará copia de los documentos durante tres años.

Artículo 9.- 1.- La custodia y archivo de los Expedientes corresponde al Secretario del Centro o, en su caso, al Equipo directivo. Los documentos en ellos recogidos se conservarán en el Centro. Las Delegaciones Territoriales proveerán las medidas adecuadas para su conservación o traslado en el caso de supresión del mismo.

2.- Toda la información recogida en los Centros educativos está protegida por el derecho a la intimidad de las personas, siendo responsabilidad del propio Centro su utilización o difusión para otros fines que no sean los estrictamente educativos.

Artículo 10.- La evaluación del aprendizaje del alumnado corresponderá al tutor o tutora de cada grupo. Esta recogerá la información proporcionada por los otros profesionales que, en el contexto escolar, incidan en el grupo o atiendan a alguno de ellos en particular.

II.3. Desarrollo del proceso de evaluación

Artículo 11.- 1.- Al incorporarse por vez primera un niño o niña a un Centro de Educación Infantil se recogerán los datos relevantes sobre su proceso de desarrollo. Esta EVALUACION INICIAL incluirá la información proporcionada por los padres o responsables legales y, en su caso, aquella información relevante que sirva para la intervención educativa. La información recogida en la Ficha Personal (Anexo I) será completada con la evaluación realizada por el maestro o maestra mediante la observación directa del grado de desarrollo de las capacidades básicas, durante el primer período de incorporación de los niños a su vida escolar.

2.- Asimismo, los Centros que impartan el segundo ciclo solicitarán a los Centros de origen los datos oportunos, si el niño o niña ha realizado el primer ciclo. En todo caso, cualquier Centro que escolarice a niños que hayan asistido previamente a otro solicitará de éste la información correspondiente.

Artículo 12.- 1.- A lo largo del proceso educativo y de forma continua se llevará a cabo una evaluación cualitativa que permita definir las situaciones, las mejoras y las dificultades, así como sus causas y las propuestas para intentar superarlas. Esta evaluación ha de asentarse en un registro de observaciones y datos relevantes contrastados por las distintas perspectivas de quienes intervienen en el aula.

2.- La EVALUACION CONTINUA tiene la finalidad de ajustar la intervención educativa para que potencie el proceso de aprendizaje. Así, en todas las situaciones en las que el alumno o alumna no alcance los objetivos propuestos será necesario desarrollar acciones de refuerzo educativo para alcance tales objetivos. Cuando esta medida resulte insuficiente será preciso elaborar una adaptación curricular individual. En todos los documentos oficiales de reflejo de la evaluación se hará constar si se han tomado estas medidas de refuerzo educativo o de adaptación curricular individual.

3.- Agindu honetako 7. atalean adierazitako ebaluaketa-txostenek oinarri gisa hartuko dute egindako ebaluaketa jarraitu hori, ikasle bakoitzaren ikaskuntza-prozesuan gailentzen diren alderdiak jasoko dituztelarik.

13. atala.- 1.- Etapa bukatutakoan AZKEN EBALUAKETA egingo da. Horretarako, ebaluaketa jarraituari esker lortutako datuak kontuan izateaz gain, erreferentzi gisa hartu beharko dira Ikastetxearen Curriculum-proiektuan agertzen diren helburu orokorrak eta ebaluaketa-irizpideak.

2.- Ebaluaketaren Azken Txostenean, helburu orokorretan islatzen diren gaitasun desberdinen eskuratzemilari buruzko behaketa esanguratsuenak jasoko dira.

14. atala.- 1.- Haur hezkuntzan, ikasleak automatikoki igaroko dira kurtso batetik bestera. Era berean, etapa bukatu ondoren, automatikoki igaroko dira Lehen Hezkuntzara, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek kasuan izan ezik, legeriak hastea atzeratzeko modua ematen badie, kasu horretan ezarriko den prozedura jarraitu behar delarik.

II.4. Familiei informazioa ematea

15. atala.- 1.- Tutoreak gurasoei edo eta legezko arduradunei ikasleek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruzko informazioa eman behar die noizean behin eta horiek ematen dioten informazioa ebaluaketan sartu. Tutoreak Ikastetxearen Curriculum-proiektuan ezarritako helburuak lortzeko orduan ikusitako aurrerapen edo eragozpenen berri eman behar die guraso nahiz arduradunei.

2.- Ikastetxearen Curriculum-proiektuan familiei noizean behin seme-alaben aurrerapen berri emateko beharrezko aurrikuspenak sartu behar dira, hala agintzen baitu bi erakundeen arteko koordinazioa eta komunikazioa bultzatzeko printzipioak.

3.- Gutxienez hiruhilero nolabaiteko txostenen bat egin beharko da, ahozkoa nahiz idatzizkoa. Txosten horrek probetxugarri eta orientabide-iturri izan behar du, haurren aurrerapenez edo eta hartutako errefortzu nahiz egokitzapen neurriez arituko delarik batik bat. Horretaz gain, familientzako iharduera-gomendioak ere azal ditzake. Etapako irakas-taldeak erabakiko du txostenaren itxura eta bertan sartuko diren edukinak. Beti ere kontuan hartu beharko da Curriculum-proiektuaren esparrua eta ez da eragozpenik izango nahi duten guraso edo eta legezko arduradunek kurtso bukaerako Txosten indibidualaren edo Etapako Azken Txostenaren kopia bat izateko.

III. IRAKASKUNTZA-PROZESUAREN EBALUAKETA

16. atala.- 1.- Ebaluaketaren xedea kontuan hartuta eta horren arabera, irakaskuntza-prozesua ikaslegoaren ezaugarri eta premiei egokitzen ote zaion egiaztatu nahi baitu, irakas-ihardunean beharrezko erreformak egin behar dira. Halaber, ikasleek ebaluaketa egiteaz

3.- Los informes de evaluación a los que se refiere el artículo 7 de la presente Orden, tomarán como base la evaluación continua realizada, recogiendo aquellos aspectos que sean más relevantes del proceso de aprendizaje de cada alumno o alumna.

Artículo 13.- 1.- Al término de la etapa se procederá a la EVALUACION FINAL del alumnado, a partir de los datos obtenidos en el proceso de evaluación continua y tomando como referencia los objetivos generales de etapa y los criterios de evaluación establecidos en el Proyecto Curricular del Centro.

2.- En el Informe Final de Evaluación se recogerán las observaciones más relevantes sobre el grado de adquisición de los diversos tipos de capacidades que reflejan los objetivos generales.

Artículo 14.- 1.- A lo largo de la Educación Infantil los alumnos y alumnas promocionarán automáticamente de un curso a otro. Igualmente, la promoción a la Educación Primaria al finalizar la etapa será automática, salvo en el caso de aquellos alumnos o alumnas con necesidades educativas especiales en los que la legislación posibilite el retraso de su inicio, siguiendo en este caso el procedimiento que se establezca.

II.4. Información a las familias

Artículo 15.- 1.- Corresponde al tutor o tutora informar periódicamente a los padres o responsables legales sobre el proceso de enseñanza-aprendizaje de los alumnos y alumnas, e incorporar a la evaluación la información que aquellos proporcionen. La información aportada por el tutor o la tutora se referirá a los progresos y dificultades detectadas en la consecución de los objetivos establecidos en el Proyecto Curricular del Centro.

2.- El Proyecto Curricular del Centro incluirá las previsiones necesarias para hacer efectiva la información periódica a las familias sobre el progreso de sus hijos o hijas, de acuerdo con el principio de favorecimiento de la coordinación y comunicación entre ambas instituciones.

3.- Al menos con una periodicidad trimestral se realizará algún tipo de informe, oral o escrito. Dicho informe será constructivo y orientador, se centrará en los progresos efectuados por los niños y las medidas de adaptación y refuerzo que en su caso se hayan tomado y podrá incluir recomendaciones para la actuación de las familias. El contenido y forma del informe será decidido por el equipo docente de la etapa en el marco del Proyecto Curricular, sin perjuicio de que los padres o responsables legales que así lo soliciten puedan disponer de una copia escrita de los Informes Individuales de fin de curso o del Informe Final de la etapa.

III. EVALUACION DEL PROCESO DE ENSEÑANZA

Artículo 16.- 1.- De acuerdo con la finalidad de la evaluación, que pretende verificar la adecuación del proceso de enseñanza a las características y necesidades del alumnado y, en función de ello, realizar la mejoras que procedan en la actuación docente, además de la eva-

gain, irakaskuntza-prozesuan parte hartzen duten elementu desberdinen garapena baloratu beharra dago.

2.- Irakas-taldeak planifikatu behar du irakaskuntza-prozesuaren ebaluaketa; horrela, irakas-ihardunaren analisi bat egingo dela bermatuko da, bai hezkuntza prozesuan eta baita ikasturte bakoitzaren bukaeran ere.

3.- Pedagogi Koordinaziorako Batzordeak edo, kasuan kasu, Zuzendaritza-taldeak, abuztuaren 11ko 236/1992 Dekretuaren Eraskinean jasotako etaparen Orientabide orokorrak gogoan, uneoro zehaztu beharko ditu ebaluatzeko garrantzitsuen iruditzen zaizkion irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren alderdiak, kontuan izan behar duelarik Ikastetxearen beraren funtzionamendua eta bertako Curriculum-proiektua. Hona hemen zehaztu beharreko zenbait alderdi: irakaslegoaren eta ikasleagoaren arteko harremanak edo irakaslegoaren eta familien artekoak, ikastexeak dituen baliabideen antolaketa eta erabilpena, irakas-iharduna burutuko dela erantzule diren organu edo eta kideen arteko koordinazioa, e.a.

4.- Irakasle bakoitzaren esku dago irakas-prozesuak eta bere praktika ebaluatzea. Ezarritako estrategia globalak abiapuntu gisa harturik, maisu-maistra bakoitzak (bakarka eta zikloka nahiz mailaka) irakaskuntza-prozesua aztertuko du eta zer aldatu behar den eta nola erabakiko du.

5.- Hala ere, irakaskuntza-prozesuaren ebaluaketa Ikastetxearen antolaketa-dokumenturen batean (Urteko txostenean, esaterako) agertuko dela bermatu behar da, eragina izan behar duelarik Ikastetxearen Curriculum-proiektuan eta gelako programazioetan.

IV. IKASTETXEAREN CURRICULUM-PROIEKTUAREN EBALUAKETA

17. atala.- 1.- Irakas-taldeak ebaluatuko du Ikastetxearen Curriculum-proiektua, ahalik eta eraginkorren izateko etengabe doitu dela bermatuko baita horrela. Uneei buruzko aurrikuspenek, mekanismoek eta ebaluaketan parte hartuko duten pertsona edo organuek Curriculum-proiektuan agertu beharko dute.

2.- Irakas-taldearen edo, kasuan-kasu, Pedagogi Koordinaziorako Batzordearen esku dago Ikastetxearen Curriculum-proiektua noizean behin ebaluatzea eta koordinatzea. Horretarako, hain zuzen, analisi-proposamen bat egin beharko du Ikastetxeako Organu Kolegiatuaren iritzia eta baita tutoreek, ikasleen ebaluaketa bukatu ondoren, dituztenak ere kontuan hartuta. Era berean, ikastetxearekin harremanen bat duten kanpoko hezkuntza-zerbitzuek luzatutako informazio baliagarriak jaso daitezke analisi-proposamen horietan (hala nola, Hezkuntza Ikuskaritza Teknikoak eta Laguntzako Zerbitzuek emandakoak).

3.- Curriculum-proiektua ebaluatzerakoan, kontuan hartu behar da praktikara eta ikasleen ikaskuntzaren ebaluaketaren emaitzetara egokitzen ote den. Ikuspegi

luación de los alumnos y alumnas, es preciso valorar el desarrollo de los diferentes elementos implicados en el proceso de enseñanza.

2.- Corresponde al equipo docente la planificación de la evaluación del proceso de enseñanza, de forma que se garantice que tanto a lo largo del proceso educativo, como al final de cada curso, se realice un análisis de la práctica docente.

3.- La Comisión de Coordinación Pedagógica o, en su caso, el Equipo Directivo determinará en cada momento, a la luz de las Orientaciones Generales para la etapa recogidas en el Anexo del Decreto 236/1992 de 11 de agosto, aquellos aspectos del proceso de enseñanza-aprendizaje que se consideren más importantes para evaluar, en relación al funcionamiento del Centro y a su Proyecto Curricular. Aspectos como las relaciones profesorado-alumnado o profesorado-familias, la organización y aprovechamiento de los recursos del Centro, la coordinación entre los diferentes órganos o personas responsables del desarrollo de la práctica docente...

4.- Corresponde a cada profesional de la enseñanza la realización de la evaluación de los procesos docentes y de su propia práctica. A partir de las estrategias globales definidas, cada maestro o maestra (de forma individual, por niveles o por ciclos) analizará el proceso de enseñanza y determinará aquellos elementos que deben ser modificados y en qué sentido.

5.- Deberá garantizarse, en todo caso, que la evaluación del proceso de enseñanza quede reflejada en alguno de los documentos básicos de organización del Centro (como, por ejemplo, en la Memoria anual), y que incida en la adaptación del Proyecto Curricular del Centro y de las programaciones de aula.

IV. EVALUACION DEL PROYECTO CURRICULAR DE CENTRO

Artículo 17.- 1.- El Proyecto Curricular de Centro deberá ser evaluado por el equipo docente, garantizando de este modo su permanente ajuste de cara a su mayor eficacia. Las previsiones sobre los momentos, mecanismos, personas u órganos implicados en esta evaluación deberán ser contemplados en el propio Proyecto Curricular.

2.- El Equipo Directivo o, en su caso, la Comisión de Coordinación Pedagógica tendrá la función de coordinar la evaluación periódica del Proyecto Curricular del Centro. Para ello, elaborará su propuesta de análisis, en la que se tomarán en cuenta las opiniones de los Organos colegiados del Centro así como aquellas otras manifestadas por los tutores o tutoras como resultado de la evaluación del aprendizaje de los alumnos, pudiendo recoger también informaciones que le sean útiles de los servicios educativos externos que tengan relación con el Centro (Servicio de Inspección Técnica de Educación y Servicios de apoyo).

3.- La evaluación del proyecto curricular se realizará desde la perspectiva de su adecuación a la práctica educativa y de los resultados de la evaluación del aprendi-

horretatik begiratuta aurrean aipatu dugun analisi-proposamenak une horretan egokienak diren edo eta aztertzeko nahiz hobetzeko alderdi aipatuak aukeratuko ditu. Hona hemen alderdi horien berri: helburuak ikasleentzako ezaugarrietara egokitzea; hizkuntza-tratamendurari buruz hartutako erabakien egokitasun-maila; edukinak ongi aukeratzea, sekuentziatzea eta denborazkotzea; ezarritako metodologi lerroen egokitasun-maila; hautatutako curriculum-materialetan erabilgarritasun-maila; ebaluaketa-prozesuaren eta irizpideen balioa; hartutako hezkuntza-errefortzu eta curriculum-egokitzapen guztien egokitasun-maila; aniztasunaren taratera burutzeko neurrien zuzentasun-maila; burututako tutoretza-ihardunaren irizpideen erabilgarritasun-maila; Ikastetxearen baliabideak erabiltzea; ziklo desberdinetako irakasle-antolatzea eta koordinatzea, e.a.

4.- Ikastetxearen Curriculum-proiektuaren ebaluaketaren emaitzak gauzatu egin behar dira eta proiektua beteko dela edo aldatuko dela ahalbidetuko duten mekanismoak abiarazi. Hori egin asmoz, Ikastetxeko zuzendariak neurri egokiak hartuko ditu edo, bestela, organo kolegiatuei utziko die bere eskumenen arabera dagozkien erabakiak hartzeko aukera. Bukatzeko, Ikastetxearen oinarrizko dokumenturen batean jaso beharko da guzti horren berri.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. - Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako ebaluaketa Agindu honetan jasotakoaren arabera egingo da, oro har. Sail honek araupetuko ditu Curriculum-egokitzapen indibidualak egiteko prozedurak.

Bigarrena. - Sistema kontrolatzea eta ebaluaketa egitea bere esku dagoela kontuan izanik, eta eskola-eremuak ebaluaketan duen garrantzia gogoan, Hezkuntza Ikuskaritza Teknikoak ikastetxeetan esku hartuko du ebaluaketa-prozesuaren garapena hobetzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak emango ditu Agindu hau betetzeko eta garatzeko beharrezko diren arauak eta orientabideak.

Bigarrena. - Honako agindua EHAAn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko maiatzak 5.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

zaje de los alumnos. Desde esta perspectiva, la propuesta de análisis a la que se refiere el apartado anterior, seleccionará de entre los siguientes, aquellos aspectos del proyecto que considere más adecuados al momento, o más útiles para su revisión y mejora: adecuación de los objetivos a las características de los alumnos; idoneidad de las decisiones sobre tratamiento lingüístico; correcta selección, secuenciación y temporalización de los contenidos; idoneidad de las líneas metodológicas definidas; utilidad de los materiales curriculares seleccionados; validez de los procesos y de los criterios de evaluación; pertinencia de las medidas de refuerzo educativo y de adaptación curricular adoptadas; corrección de las medidas de tratamiento a la diversidad; utilidad de los criterios de acción tutorial llevados a cabo; aprovechamiento de los recursos del Centro; organización y coordinación del profesorado de distintos ciclos...

4.- Los resultados de la evaluación del Proyecto Curricular de Centro deberán plasmarse en la puesta en marcha de los mecanismos que permitan el cumplimiento del mismo, o su modificación, para lo cual el Director o la Directora del Centro adoptará las medidas oportunas o trasladará, en su caso, a los órganos colegiados aquellas medidas que les correspondan en el ejercicio de sus competencias, quedando constancia de ello en alguno de los documentos básicos de organización del Centro.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. - La evaluación de los alumnos y alumnas con necesidades educativas especiales se registrará, con carácter general, por lo dispuesto en la presente Orden. Este Departamento regulará específicamente los procedimientos para la elaboración de Adaptaciones Curriculares individuales.

Segunda. - De acuerdo con las funciones de control y evaluación del sistema que le corresponden, y teniendo en cuenta el sentido que la evaluación adquiere en el ámbito escolar, la Inspección Técnica de Educación actuará en los Centros con el fin de mejorar en ellos el desarrollo de los diferentes procesos de evaluación.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. - El Consejero de Educación, Universidades e Investigación dictará las normas y dará las orientaciones precisas para la aplicación y desarrollo de la presente Orden.

Segunda. - La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el B.O.P.V.

Vitoria-Gasteiz, 5 de mayo de 1993.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.

I. ERASKINA IKASLEAREN FITXA PERTSONALA**ARGAZKIA****IKASLEAREN ETA FAMILIAREN DATUAK**I.ER.ZKIA.:

1. DEITURA:..... 2. DEITURA:

IZENA:..... Jaioteguna: U / H / E

Herria: Probintzia edo Lurraldea.....

Herrialdea: Nazionalitatea

Bizitokia:

Helbidea: Blokea:..... Zkia. Solairua....

Posta-kodea:..... Herria:..... Telefonoa.....

Larrialdietarako tfnoa:..... Ikastetxearekin aritzeko hizkuntza: Gazt. Eusk.

Aita edo Legezko arduraduna

1. Deitura:..... 2. Deitura:..... Izena:.....

Jaioteguna: U / H / E

Ikasketak:..... Lanbidea:.....

Ama edo Legezko arduraduna

1. Deitura:..... 2. Deitura:..... Izena:.....

Jaioteguna: U / H / E

Ikasketak:..... Lanbidea:.....

Anai-arreba kopurua:..... Zenbagarrena:.....

ESKOLATZERAKO DATU GARRANTZITSUAK

IKASTETXEA: _____

KODEA

IKASTETXEAN NOIZ SARTU ZEN:.....

NOIZ JOAN ZEN:.....

HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO ESKOLAKETA-LABURPENA

IKASLEA: _____ I.ER.ZKIA.: _____

1. ZIKLOKO MAILA	IKASTETXEAREN IZENA ETA HELBIDEA	IKASTURTEA	IKASLEAREN ADINA	ZUZENDARIAREN IZENPEA ETA IKASTETXEAREN ZIGILUA
1.				
2.				
3.				

ESKOLATZE-PROZESUAN ZEHAR IZAN DIREN DATU GARRANTZITSUAK

DATA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....(e)ko datuz bukatu du Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa.

O.E. Zuzendaria

Tutorea

Izpta.: _____

Izpta.: _____

HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOKO ESKOLAKETA-LABURPENA

IKASLEA: _____ I.R. ZKIA.: _____

2. ZIKLOKO MAILA	IKASTETXEAREN IZENA ETA HELBIDEA	IKASTURTEA	IKASLEAREN ADINA	ZUZENDARIAREN IZENPEA ETA IKASTETXEAREN ZIGILUA
1.				
2.				
3.				

ESKOLATZE-PROZESUAN ZEHAR IZAN DIREN DATU GARRANTZITSUAK

DATA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....(e)ko datuz bukatu du Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa.

O.E. Zuzendaria

Tutorea

Izpta.: _____

Izpta.: _____

ANEXO I FICHA PERSONAL DEL ALUMNO


FOTO

DATOS PERSONALES Y FAMILIARESN.º R.A.:

APELLIDO 1:.....APELLIDO 2:.....

NOMBRE:..... Fecha de nacimiento: AA / MM / DD

Municipio: Provincia o Territorio:.....

País:..... Nacionalidad:.....

Domicilio:

Dirección: Bloque:..... N.º:..... Piso:.....

Código postal:..... Municipio:..... Teléfono:.....

Tfno en caso de urgencia:..... Idioma de relación con el centro: Cast. Eusk.**Padre o Responsable legal**

Apellido 1:.....Apellido 2:.....Nombre:.....

Fecha de nacimiento: AA / MM / DD

Estudios:..... Profesión:.....

Madre o Responsable legal

Apellido 1:.....Apellido 2:.....Nombre:.....

Fecha de nacimiento: AA / MM / DD

Estudios:..... Profesión:.....

N.º de hermanos/as: Lugar que ocupa entre ellos:.....

DATOS RELEVANTES PARA SU ESCOLARIZACION

CENTRO: _____

CODIGO

FECHA DE INGRESO EN EL CENTRO:.....

FECHA DE BAJA:.....

RESUMEN DE LA ESCOLARIDAD EN EL PRIMER CICLO DE EDUCACION INFANTIL

ALUMNO O ALUMNA: _____ N°.R.A.: _____

NIVEL DEL 1º CICLO	NOMBRE Y DIRECCION DEL CENTRO	CURSO ACADÉMICO	EDAD DEL ALUMNO/A	FIRMA DEL DIRECTOR/A Y SELLO DEL CENTRO
1º				
2º				
3º				

DATOS RELEVANTES A LO LARGO DE SU ESCOLARIZACIÓN

FECHA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Con fecha: finaliza el Primer Ciclo de Educación Infantil.

Vº Bº El/La Director/a

El/La tutor/a

Fdo.: _____

Fdo: _____

RESUMEN DE LA ESCOLARIDAD EN EL SEGUNDO CICLO DE EDUCACION INFANTIL

ALUMNO O ALUMNA: _____ N°.R.A.: _____

NIVEL DEL 2º CICLO	NOMBRE Y DIRECCION DEL CENTRO	CURSO ACADÉMICO	EDAD DEL ALUMNO/A	FIRMA DEL DIRECTOR/A Y SELLO DEL CENTRO
1º				
2º				
3º				

DATOS RELEVANTES A LO LARGO DE SU ESCOLARIZACIÓN

FECHA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Con fecha: finaliza el Segundo Ciclo de Educación Infantil.

Vº Bº El/La Director/a

El/La tutor/a

Fdo.: _____

Fdo: _____